

Noaia!!



Udarregiko alebin neskak,
Gipuzkoako txapeldun-orde



Soka dantza,
San Joanetan berritu ohi den ohitura

osasunaren alde
(MORATORIA)
ERRAUSTEGIRIK EZ!



MANIFESTAZIOA DONOSTIAN
ekainak 20, 12:00etan bulebarretik

ERRAUSKETAREN
AURKAKO
KOORDINAKUNDEA



Usurbilgo
Ituna

ALTERNATIBA. ARALAR. BERDEAK. EZKER ABERTZALEA. EZKER BATUA.
CCOO. ELA. EHNE. EILAS. ESK. HIRU. LAB.
ERRAUSKETAREN AURKAKO KOORDINAKUNDEA. EGUZKI. GREENPEACE. EKOLOGISTAK MARTXAN.
USURBILGO UDALA

Albistea iruditan!

Baxurde Txikiko zortzi kide, Zarautzko Triatloian

2,5 kilometro igerian, 82,5 kilometro bizikleta gainean eta 20 kilometro lasterka egin behar izan zituzten joan den ekainaren 12an Zarautzen ospatu zen triatloi txapelketan parte hartu zutenek. Lehiarako izena emana zuten 556 kirolaritik 449 partaideek osatu zuten ibilbidea.

Baxurde Txiki taldeko zortzi kide zeuden. Hona hemen euren denborak:

34- Mikel Otaegi	4:26:20
54- Beñat Sagarzazu	4:32:22
68- Iñaki Añorga	4:36:33
69- Ion Korta	4:36:33
75- Joxe Mari Otamendi	4:37:07
257- Martin Larrañaga	5:10:59
313- Iban Maritxalar	5:19:32
314- Joxe Manuel Algorta	5:19:33



EZ PENTSA, LASTERKETA AMAIERAN AURPEGI HOBEA ZUTEN...

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkari koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

ITALIAKO ATEZ ATEKO ESPERIENTZIA _____ 6. OR.

SAN JOANETAKO GEHIGARRI BEREZIA _____ 9. OR.

ZIORTZAKO KANPALDIA _____ 17. OR.

ESKUBALOI TALDEAREN EGUNA _____ 19. OR.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**BENTA
TABERNA**
Oilasko erreak
Ogitartekoak
San Ignacio 1, behea
USURBIL 943 36 93 05

**ERRAZKIN
Igeltseritza S.L.**
Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679
K/ Nagusia 47. Behea A.
20170 USURBIL

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78
20170
USURBIL



IDOIA TORREGARAI

Ama (ez hain) hasiberriaren balada

Dagoeneko urtea pasa da amatasunaz idatzi nuen azken alditik. Hankagorriyak bi urte egingo ditu laster eta batek baino gehiagok pentsa dezake dagoeneko fundamentu pixka bat edukiko dudala lan hauetan. Baita zea' re.

Azken hilabeteetan mundu berri bat ezagutu dut: Askatasun plaza. Dagoeneko gure bigarren etxea bihurtu da, izan ere, gure hankagorriaren obsesiyua kulunpioan ibiltzea da, edo berak "teknikoki" deitzen dion bezala, tilin-talan ibiltzea. Beragatik, goizetik gaueraino hortxe ibiliko zen, aurrera eta atzera. Hortxe egoten naiz, kolunpioari eman eta eman, Rafa Nadal baino beso gehiago egiten, eta txanda bakar batean ez badiot eragiten, segituan botatzen du atzera burua AMA, BULTZA!, esateko. Salbazio bakarra beste ume bat itxaroten egotea da, eta ama hezitzaile moduan beste niniei ere utzi egin behar zaielako aitzakia erabilita, hortik hanka egitea!

Hankagorriaren hurrengo pausoa ez dakizu zein izan den: izan daiteke txirrista haundira edo txikira joatea, edo muellea daukaten zalditxoetan igo nahi izatea, edota hondarretan kroketa bat bezala jartzeko asmoa izatea. Une honetan oso adi egon behar duzu: alde batetik, begi bat hankagorriyan eduki behar dezue, ze begira ez zauden mikrosegundu horretan BETI gertatzen da zerbait (han-

kazgora edo muturrez aurrera erori, gure kasu gehiengotik); eta bestetik, beste begia etxetik ekarri dituzun traste piloan (kotxezitoa, sobran daukan jertsea, jostailuak, poltsa...) jarri behar duzu, dena jaso eta Speedy Gonzalez baino azkarrago bere atzetik joateko (andele, andele!). Eta hau gutxi balitz, sobran geratzen zaizun eskuarekin (nola da posible?) platanoa, txorixo bokadilloa edota tokatzen den merienda ahoan sartzen saiatzen zara, NBAko jokalaria bat izango bazina bezala.

Dagoeneko parkearen zoko guztietan goitik behera lau bat aldiz ibili ondoren, etxeratzeko ordua dela pentsatzen hasten naiz. Eta pentsatze hutsarekin hankagorriyak nire intentzioa sumatu du (hau radarra!) eta korrika ateratzen da txirristan gora, etxera ez duela joan nahi garraisa. Hasieran negoziatu egiten dut; arratsalde osoa parkean pasa dugula eta bihar ere etorriko garela azaltzen diot. Kasurik ez duela egiten ikusita, bigarren estrategia erabiltzen dut, errukia ematearena; amartxo nekatuta dagoela esan eta triste aurpegia jartzen dut. Eta berak jaramonik ez. Azkenean, hirugarren bideari heltzea besterik ez zait geratzen; sobornoa. Etxera joaten bagara gusanitoak erosiko dizkiodala esaten diot. Eta orduan bai, orduan Formula 1eko autoa bezain azkar jeisten da txirristatik.

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Ugaitz Agirre - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idóia Torregarai

Aldarrikapena nagusi Eskola Txikien festan

Larraul, Zubietako eta Itziarren dauden eskola txikiak kendu nahi ditu Hezkuntza Sailak. Eskola txikiak haserre agertu dira Isabel Celaa Hezkuntza sailburuaren erabakiarekin eta hala jakinarazi zuten pasa den igandean, Altzon egin zen Eskola Txikien festan.

Halaber, Hezkuntzako eta Administrazioako ordezkariak babesa eman diete Larraulgo, Zubietako eta Itziarko hezkuntza proiektuei, eta Hezkuntza Sailari eskatu diote elkarriketari bidea zabaltzeko, hiru eskola hauekin akordio batera iristeko.

Aginagan ere bada Eskola Txikia, baina hori oraingoz ez dago Hezkuntza sailaren begipuntuan.

Frontoia gainezka izan zen Kukubelen saioan

Kukubel artzain neska gaztea KUsurbilgo frontoian izan zen aurreko astean; eta bere txirularekin bertaratu ziren guztiak liluratuta utzi zituen. Ardiak, lamina, sorgina, lapurrak... Askok izan ziren Kukubelek inguruan izan zituen pertsonaiak.



FRONTOIA GAINEZKA IZAN ZEN
KUKUBELEN EMANALDIAN.

Igandean, mendi martxa Haitzaundira

Ekainaren 19an sei urte hil zela Joxe Mari Arriaga, *Motza* ezize-nez ere ezaguna zena. Bere errautsak Haitzaundin aineratu zituzten.

Igande honetan, ekainak 20, Haitzaundira abiatuko dira bere etxe-koak eta lagunak. Bertan den ikurriña aldatuko dute. Goizeko 9:00etan abiatuko dira Haitzaundira; Bordatxo tabernan elkartuko dira.

Sagardo Eguneko errifa

Sagardo Egunean, presoen eskubideen aldeko taldeak ateratzen duen errifaren jabea agertu da. Zenbaki saritua 0319 izan da eta errifa Irrati tabernan saldu zen. Irabazleak mariskada bat jasoko du.

Bi aste baino ez, Santixabelei ekiteko

Hiru bilera egin ostean, Jai Batzordeak egitarauko xehetasun gehienak lotuak ditu. Azken aldiz, joan den ekainaren 10ean bildu zen. Bilkuran, ohi denez, uztailleko lehen egunetan ospatuko diren Santixabeletan ekitaldiak antolatu dituzten herriko elkarte edota taldeetako ordezkariak parte hartu zuten.

Ekainaren 30etik uztailaren 4ra ospatuko dira aurtengo Santixabelak. Ofizialki jaiak Santixabel bezperan hasiko diren arren, hil honetako azken asteazkenerako zenbait ekitaldi programatu dira, pala txapelketako finalak arratsaldean, edota kontzertuak txosnetan gauean. Berrikuntza gisa, aurten jai eremua Kaxkoan bildu eta indartzearen aldeko apustua egin du Jai Batzordeak. Ildo horretatik frontoi inguruan eta Askatasuna plazan ospatuko dira ekitaldi gehienak. Baina aurtengoan, frontoi atzean ere txosna izango da. Artzabalen aldiz, egunez haurrei zuzendutako zenbait ekitaldi burutuko dira.

Santixabel egunean, oilasko biltzaileak

Uztailaren lehenean, Haurren Eguna ospatuko da; jokoak, puzgarriak, buruhandiak, lagun arteko bazkaria edota txokolatada izango dute gaztetxoek eguna pasatzeko. Txosnak egun horretan irekiko dituzte, baita maskota igo eta herri afaria ospatu ere. Urtero bezala udaletxeko plazan hitzordua dute herritarrek gauerdian, jaiari hasiera ofizialki emateko.

Eta Santixabel egunean murgilduko da herria. Aurtengo uztailaren 2a, Oilasko Biltzaileen Eguna ere izango da. Goizean goiz, auzoz auzo ibiliko dira oilasko biltzaileak. Bazkaritarako etorriko dira Kaxkora eta ondoren, hainbat jokoetan primeran pasatzeko tarte hartuko dute. Arratsaldean Zumartxan Zumarte musika eskolako gazteek osatutako txarangak alaituko ditu afalaurreko orduak.

Herriko musika taldeak, txosnetan

Gaueko musika eskaintzan egongo diren berrikuntzak aipatzeko modukoa da. Des-kontrol taldeak joko du



AURREKO ASTEAN BILDU ZEN JAI BATZORDEA.

frontoian uztailaren 2an, baita Arima Sutan eta Akatu taldeek ere. Ipar Euskal Herriatik Mikel Hats taldeak alaituko du jaietako larunbat gaua eta Santixabelak amaitzeko Deboson talde kubatarraren doinuak.

HERRI KIROLAK

“Miren Urkiola, Idoia Etxeberria, Izeta II eta Haimar Irigoienek erakustaldiak antolatu dira”

Herriko musika taldeek txosnetan joko dute. Askatasuna plazan mus txapelketa ere jokatu da. Eta aurten, ohi bezala, larunbatarekin kantu-zikiri jana Kuxkuxtu taldeak girotuta, omenaldi eta errepresaliatu politikoen aldeko kalejirarekin batera.

Usurbil eta Aginaga, giza-proban aurrez aurre

Kirolak tarte nabarmena izango du aurtengo Santixabeletan. Usurbilgo Pilota eta Pala txapelketen finalekin batera, aginagarrak eta usurbildarrak aurrez aurre jarriko dituen giza-proba ospatuko da. Usurbildarrak ardatz izango ditu baita, uztailaren 4an burutuko den Aizkolari Txapelketak ere. Miren Urkiolak eta Idoia Etxeberriak batetik, eta Izeta II.a eta Haimar Irigoienek harri jasotze erakustaldia eskainiko dute. Eta Usurbilgo harriaren aurkezpena ere iragarria dago.

Santixabeletako

Bertsopaper Lehiaketa

Usurbildarra izatea eta gai librean idaztea, horiek dira baldintza nagusiak. Lanak, ekainaren 29a baino lehen Udaletxera eman behar dira edo postaz bidali (XXXIV. Bertsopaper Lehiaketa, Joxe Martin Sagardia Enparantza, 20170 Usurbil). Lanek inoiz argitaratu gabeak izan beharko dute. Gutxienez 8 bertso; gehienez 10 bertso.

Lanak egilea nor den adieraz dezakeen daturik gabe aurkeztuko dira, izengoitiz. Lanarekin batera kartazal itxi batean partehartzailearen datu pertsonalak ipini.

Erabakia jaietako bertso saioan emango da aditzera, uztailaren 3an.

Lehen hiru lanak sarituko dira.

Egitarau lehiaketak badu irabazlerik

Ekeinaren 10ean bildu zen Jai Batzordeak egitarau diseinu lehiaketako sariduna hautatu zuen. SPA ezinez aurkeztutako lana, **Olatz Goenaga** eta **Aitziber Lanberri** herritarrenak irabazi du txapelketa. Inoiz baino lan gehiago aurkeztu dira aurtengo deialdira, guztira hamar diseinu.

Italiarrak aitzindari atez ateko bilketan

San Marko Mankomunitatetik Italiara egindako bidaiaren kronika (I)

Duela bi urte, Herrialde Katalanetako atez ateko bilketa esperientziak ezagutzeko bidaia antolatu zuen San Marko Mankomunitateak. Oraingoan aldiz, Gipuzkoako ordezkariak batek atez ateko bilketaren sorterrira jo du, Italia iparraldera.

Ekainaren 5etik 9ra hondakinen bilketa eta tratamendua zer modutan bideratzen duten ezagutzeko aukera izan zuten, Milano eta Torino inguruetara joan ziren San Marko eta Debagoienako Mankomunitateko ordezkariak, baita bi erakundeon barruan ordezkariak duten udalerrietako berrogeitik gora lagunek; alkate, zinegotzi, teknikari, herri eragile eta kazetarik. Italia iparraldean, hondakinengatik herritarrei aplikatzen zaien tarifa ordaintzeko indarrean dituzten sistemak ere ezagutu dituzte. Guztia zenbait udalerrri edota hirietako hainbat hitzaldietan parte hartuta.

Herrien tamaina, ez da muga

Hemezortzi milioi herritarren hondakinak atez ate biltzen dituzte Italian, udalerrri txikietan, baina baita hirigune handietan ere. Duela hamabost urte ekin zioten bilketa sistema honi Italia iparraldean, hondakinen arazo larriari irtenbideren bat eman nahian. Ordutik gaur egunera pixkanaka hedatzen joan da atez ateko Italia. Gaur egun, Dogliani bezalako 4.800 biztanleko herri txikietan, hondakinen %75,62 biltzen dute atez ate. 3.800 biztanleko Castagnolen, %73a edota 39.000 biztanleko Grugliascon %62ko gaikako bilketa maila dute.

Italian, hiri guneetan ere ezagutzen dute atez ateko bilketa, ez ordea bost edukiontzien sistema. Hain zuzen, hirien tamainak edota biztanle kopurua ez dira oztopo ezta muga ere, atez ateko bilketa bideratzeko. Adibide moduan, Torinon biztanleen erdiak parte hartzen du atez ateko bilketan, 400.000 herritar inguruk hain zuzen. Aurrera begira gainera, orain arte periferian indarrean duten aipatu bilketa sistema hiri osora hedatzeko asmoa dute. Bideragarria baita, beti ere boron-



GIPUZKOAKO HAINBAT TALDE ETA ERAKUNDE ITALIAN IZAN DIRA.

date politikoa badago Torinoko probintziako erakunde nagusitik, Gipuzkoan Foru Aldundiaren parekoa den erakundetik, diotenez: "Teknikoki posible da, arazoa erabaki politikoetan dago".

ITALIAKO LEGEAK AGINDUTA

"2011n gutxienez hondakinen %60 birziklatzera behartuko die legeak"

Argi ziotenez, hondakinak arazo politiko bihurtzen direnean ezin da sistema baten inguruak adostasunik lortu. Adostasun politikoa beraz giltzarria da haien zati, hondakinak kudeatzerakoan.

Italian, hondakinen kudeaketari lotutako legedi desberdinak dituzte. Hurrenez hurren, birziklatze eta bilketa ehunekoak zenbatekoak izan behar duten zehazten duten Europa mailako legedia dute, baina baita nazio mailakoa, lekuan lekuko lege erregionalak eta udalerrri mailakoak ere. Ildo horretatik, han ohikoa da atez ateko bilketa esperientziak bultzatzeko maila desberdinetako erakundeak elkarlanean ikustea; udalak, kontsorzioak eta aipatu moduan, baita gurean Foru Aldundiaren parekoa den probintziako erakunde nagusia ere. Atez ateko bilketa esperientziak finantzatzen dituzte, komunikazio kanpainak bideratu... Maila desberdinetako erakundeek zuzenean bultzatzen dute atez ateko bilketa.

Legea, oinarri eta bultzatzaile

Legea dute erreferentzia nagusia italiarrek. Eta legeak behartuta, hainbat udalerritan epe motzera igo beharko dute birziklatze mailari dagokion ehunekoak, ERICA kooperatibako kide eta Usurbilen joan den martxoan antolatu ziren atez ateko nazioarteko jardunaldiak hitzaldietan parte hartu zuen Roberto Cavallo gure artetik Italiara joandako ordezkariari gogorarazten zien moduan. Italiarrek legea aintzakotzat hartzen badute behintzat, araudiak 2011n gutxienez hondakinen %60 birziklatzera behartuko die eta 2012an %65a.

Organikoa tratatzeko erakundeetatik bultzatutako konpostaje plantak dituzte. Halere, dauden zabortegeak itxi eta

Torinoko probintziako erakunde nagusitik 2013rako erraustegi planta, hasieran aurreikusitako lau plantatik bakarra, eraikitzeko asmoa dute. Aldi berean, asmoak beteta, Torino hirigune osora atez ateko bilketa zabaltzeko asmoa badute, hondakin kopurua gutxituko da. Probintziako erakundetik ziotenez, "bertako hondakinak gutxitzen badira, beste probintzietatik ekarriko lirateke hondakinak". Eta hondakinak ekartzen dituztenei ordainketa garestitzea litzateke Torinoko Probintziaren asmoa, modu horretan kontzientziazte bultzatu eta hondakinak murriztuko direlakoan baitaude. Baina argi dagoenez hondakinak gutxituta, erraustegiak ez luke erretzeko nahikoa gai izango.

Sortu ahala, ordaindu

Hondakinak murritzeko beste urrats bat emana dute Italian. Legediak eskatutako birziklapen maila izateko dituzten bilketa eta tratamendu sistenez gain, hondakinengatik ordaindu beharreko diru-kopurua ere desberdina da. Herritar guztiek sortutako hondakinengatik ez dute kopuru bera ordaintzen. Herri edo hiri gune batean baino gehiagotan, sortutako hondakinen arabera aldatu egiten da herritarrei aplikatzen zaien tarifa.

Italiako zenbait lekutan indarrean duten hondakinei lotutako tarifak bi zati ditu; zati finkoa, guztientzat berdina dena, eta aldakorra, hitzak dioen moduan, zenbait irizpideren arabera desberdina.

Norberak zenbat hondakin sortu eta honenbestez, zenbat ordaindu behar duen zehazteko poltsen sistema baliatzen dute zenbait lekutan. Adibidez, erreusa jasotzeko poltsak banatzen dituzte erakundeek. Zenbat eta erreus poltsa gehiago bete, orduan eta handiagoa izango da herritarrek ordaindu beharko duen diru kopurua. Hortik aurrera, lekuan lekuko berezitasunak dituzte.

GIPUZKOAKO ORDEZKARITZA

“Mikrotxip bidezko tarifa sistema ezagutzeko aukera izan dute Italiako bidaiariak”

Dogliani 4.800 biztanleko herrian adibidez, tarifaren zati aldakorrean, hondakinak murritzeko burutzen duten ahaleginaren arabera, %20ko beherapena aplikatzen diete herritarrei. Castagnolen 2004-05 urteetan, atez ateko bilketa eta sortutako hondakinen araberako ordainketa biak batera martxan jarri zituzten. Bertan, hondakinen tarifaren zati finkoa etxebizitzako metro karratuen eta bizilagun kopuruaren arabera kalkulatzaren zuten, eta zati aldakorra berriz, erabilitako poltsen arabera zehazten zuten.



ITALIAN ATEZ ATEKOA NOLA FUNTZIONATZEN DUEN EZAGUTZEKO AUKERA IZAN DUTE.

Poltsenaz gain, Gipuzkoako ordezkariak mikrotxip bidezko tarifa sistema ezagutzeko aukera ere izan du. Hondakin zatia etxe atarian uztean, hondakinak biltzeko kamioiak sortutako hondakinen bolumena neurtzen du aipatu mikrotxip-arekin. Ontziak husten diren bakoitzean, hustearen arabera igo edo jaisten da herritarrek sortutako hondakinengatik ordaindu beharreko diru kopurua.

Legediak, tarifa sistema definitu gabe

Estatu mailako legediak hondakinen araberako tarifari buruzko erreferentzia jasotzen du, atez ateko bilketa legeztatua duen moduan. Baina hutsune nabarmen bat du, ingurumen alorreko ERICA kooperatibako kide Ricardo Cavallok zioenez. “Ez du azaltzen zehazki nola kalkulatu”, adierazi zion Gipuzkoako ordezkariari. Ezta beraz, ordaindu beharreko sistema nola egokitu, aldatu edo aplikatu ere. Halere, atez ateko bilketa esperientziekin tarifa sistema aldatzea errazten dute, Cavalloren aburuz: “gaikako bilketak diru asko aurrezte ahalbidetzen du. Kasu hauetan, tarifara igarotzea arazo askoz gutxiago suposatzen du”.

Italiako hondakin kudeaketa ereduen berezitasunak

-Legedi babesa; legea birziklatze maila igotzera behartuak. Adibidez, autokonpostajea derrigorrezkoa da.

-Erakundeen arteko elkarlana: atez ateko bilketa zein tratamendu azpiegiturak bultzatu eta finantzatzaren dituzte.

-Sortutako hondakinen araberako ordainketa sistema bultzatzen dute.

-Hiri edo herrien tamaina ez da oztopoa, ezta muga ere.



SORTUTAKO HONDAKINEN ARABERAKO ORDAINKETA SISTEMA BULTZATZEN DUTE ITALIAN.

Moratoria eskatzeko manifestazioa deitu dute igande honetan Donostian

Erraustegiari ezetz esan, osasunaren alde agertu eta sei urteko moratoria eskatzeko manifestaldia deitu dute Errausketaren Aurkako Koordinakundeak eta Usurbilgo Itunak, igande honetarako, ekainak 20. Eguerdiko 12:00etan, Donostiako Bulebarretik irtengo da.

Mobilizaziorako deitzaile zerrenda anitza da. Batetik Errausketaren Aurkako Koordinakundean herri mailako hainbat plataforma biltzen dira eta Usurbilgo Itunean berriz alderdi politiko, sindikatu eta eragile desberdinak; Alternatiba, Aralar, Berdeak, Ezker abertzalea, Ezker Batua, CCOO, ELA, EHNE, EILAS, ESK,



HERRITAR HAUEK MANIFESTAZIORA JOATEKO DEIALDIAREKIN BAT EGIN DUTE.

HIRU, LAB, Eguzki, Greenpeace, Ekologistak Martxan, Usurbilgo Udala eta aipatu Errausketaren Aurkako Koordinakundea.

Guztiek, Gipuzkoa zero zabor

lurraldea izatea aldarrikatuko dute igandeko manifestaldian. Haurrak jostatzeko motorrekin agertzea deitzen diete gurasoei. Hortik, manifestazioa iragartzeko kartelaren irudia.

“Gipuzkoak aukera bat nahi du, aurrera jo nahi dugu”

Usurbilgo Udaleko alkate Xabier Mikel Errekondok igandean Donostian burutuko den manifestaziora joatera deitzen ditu herritarrak, moratoria eta Gipuzkoa Zero Zabor lurraldea izatea eskatzeko.

NOAUA! Zergatik antolatu da manifestazioa?

Xabier Mikel Errekondo. Tematuta dagoen Aldundiari Usurbil, Hernani eta Oiartzungo esperientzietatik irtenbidea badagoela ikusi dugula argi adierazteko. Atez ateko bilketarekin organikoaren ehuneko ehuna biltzen da, %0,2 inpropio baino ez du. Gipuzkoak aukera bat nahi du, aurrera jo nahi dugu. Aldundiak sei

urteko moratoria eskaini beharko luke.

N. Deitzaileak anitzak zarete?

X. M. E. Gipuzkoako esparru sozial nagusia hor dago: sei alderdiez gain, UGT ezik Gipuzkoako sindikalgintza. Aurrera begira, hondakinen gaiari dago-kionean, Gipuzkoa Zero Zaborraren bila joan behar dugu.

N. Herritarrek zergatik joan behar dute igandeko manifestaziora?

X. M. E. Aldundiak etsipena helarazteko interes handia du. Ez da egia dena egina dagoela. Lanean ari gara. Aldundia urduri dago, badaki gaizki ari dela. Italian ikusi dugunez, hemezortzi milioi herrita-

rrek atez atekoa egiten dute. Borondatea behar dugu. Italian nazio, eskualde eta herri mailako legeak daude. 15 urte daramatate atez ateko bilketa egiten, bosgarren edukiontzirik ez dute aipatzen. Atez ateko eredu desberdinak dituzte. Hemen atzera bueltan gabilta. Hemen helburuak jarri eta betearazi behar dira. Herritarrak joan daitezela manifestaziora, Aldundiari gauzak ondo egiten ari garela eta aukera bat eskatzea adieraztera. Etorkizun diren haurrek aurrera egin dezaten, osasun eta ingurumena zaindu behar ditugu. Usurbilgo herritarrei dei animoso bat egiten diet, Donostian igande eguerdi pasa joan daitezen, zentzuzko eskaria, moratoria eskatzu.

txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466
pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak
TABERNA

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE
Obaba kalea 29 • ASTEASU
943 69 68 52 • 620 800 186

N!!

gehigarri berezia
San Joanak kalezar

10
ekainak 24



Festak noiz hasiko zain dira Kalezarren...

Kalezarren, jaiak, argitasun handieneko egunetan ospatu ohi dira. Udako solstizioaren inguruko egunak dira. Eta jai hauei lotutako errito eta ohitura asko berritzeko garaia. San Joan sua piztea, esate baterako.

Krisiak, gorabeherak, etsipenak... ahazteko egunak dira. Jai giroaz gozatzeko garaia da. Orain hasi eta udazkena bitartean, kalean igarotzeko ekitaldi ugari izango ditugu eskura. Eta asteburu honetan, begibistan, San Joanak. Aurten, bi zatitan ospatuko dira jaiak. Asteburu honetakoa aurre-rapen modukoa izango da.

Eta datorren asteazkenean, San Joan egun bezperan, izango du jarraipena San Joanetako egitarauak.



KRISIAK KRISI, JAI GIROK EZ DA FALTAKO KALEZARREN.

Hasteko, auzotarren arteko jolasak



Ostiral honetan hasiko da jaien burrunba. Buruhandiak izango dira lehen protagonistak, arratsaldeko 18:00etan hasita. 19:00ak aldera, auzotarren arteko "lehia" hasiko da. Herri kirol ezberdinetan arituko dira, nor baino nor, ika-mika sanoan.

25 urte bete ditu Gorritiren Showak



Urtero bezala, Gorritiren aberekin gustura ibiliko dira haur eta gazteak; pottoka gainean, zezenekin korrika edota basurde harrapaketan. Aurten, 25 urte bete ditu plazaz plaza Gorritiren ikuskizunak. Denak akaso ez baina azkenak behintzat Kalezarren eman ditu...

SAIOA



ile apainketa
betileen tintaketa

prezio bereziak jubilatuei!

Kalezar - 943 372 952



LARRAÑAGA
PLASTIKOAK E.A.

INDUSTRIARAKO
PIEZA-MOLDAKUNTZA

Ugaldea industrialdea, 1. USURBIL
Telf: 943 36 14 46 / 943 37 33 05

Fax: 943 37 70 01

admon@larranagaplasticos.com



ALKARTASUNA

Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba

ondo pasa San Joanak!!

100
URTE

Soka dantza, urtero berritzen den ohitura

San Joan eguneko ekitaldi ederrenetakoa izango da. Kalezarreko plazaren inguruan, auzotarrak pilatuko dira beste behin ere. Tradizio handiko ohitura da, Gipuzkoan itzal luzea duena. Dantza honen inguruko xehetasun gehiago ezagutu asmoz, liburuetara jo dugu. Bitxikeria batzuk ere topatu ditugu.

Soka-dantza dantzariak elkarri eskuak emanda osatutako soka edo katean egiten den dantza da. Dantzarien soka, zirkulu irekian antolatzen da plazan, eta sokaren bi muturretan dauden dantzariak gidatzen dute dantza.

Tokian-tokiko eta unean-unekeo aldaeren ondorioz, Gipuzkoako soka-dantza guztiek egitura bera dute, baina xehetasunetan aldeak dituzte.

XIX. mendean, galbidean izan zen

XIX. mende bukaeran eta XX. mendearen hasieran, Euskal Jai eta Lore Jokoen bidez euskal mugimendu erromantikoak ordurako galbidean zegoen soka-dantza berreskuratzeko ahalegina egin zuen. Ohorezko aurrekuak antolatzen zituzten eta agintariak eta antolatzaileak soka osatuta plazaratzen ziren.

TRADIZIO HANDIKOA

“Urtean zehar, 40 soka dantza baino gehiago dantzatzen dira Gipuzkoan”

Soka-dantza Gipuzkoan

Urtean zehar 40 soka-dantza baino gehiago dantzatzen dira Gipuzkoan. Honako herri eta auzo zerrenda honetan gutxienez urtean behin soka-dantza egin ohi da: Abaltzisketa, Amasa, Andoain, Antzuola, Añorga, Arama, Aretxabaleta, Arrasate, Azpeitia, Beasain, Berastegi, Bergara, Villabona,



IAZ, KALEZARREN EGIN ZEN SOKA DANTZAN ATERATAKO ARGAZKIA.

Deba, Donostia, Eibar, Elgeta, Elgoibar, Errenteria, Ibarra, Irura, Itziar, Lasarte-Oria, Lastur, Lazkao, Legazpia, Legorreta, Lizartza, Oiartzun, Olaberria, Oñati, Ordizia,

Tolosa, Usurbil, Zarautz, Zegama, Zubieta, Zumarraga.

Zenbait urtetan Santixabeletan ere egiten zen soka-dantza, baina ohitura hori duela urte batzuk galdu zen.

Historian zehar, xelebrekerietarako ere eman du soka dantzak

Gipuzkoarren ohituren eta dantzen aldeko defentsa sutua egin zuen Manuel de Larramendik 1754an argitaratutako “Coreografía de Guipuzcoa” liburuan. XVIII. mendean dantzak gizon-emakumeen erlijio eta moralari egiten zizkion ustezko kalteen inguruko eztabaiden testuinguruan idatzi zuen Larramendi jesuitak liburu hori. Gipuzkoako dantzak egitea zilegi izateaz gain, osasuntsuak direla defendatu zuen Larramendik.

Eskuak ukitu gabe...

Arazorik gerta ez zedin zenbait baldintza betetzea gomendatu zuen, besteak beste soka-dantzan, gizon eta emakumeek elkarri eskuak uki-



NESKA-MUTILEK ESQUAK EZ UKITZEKO HASI ZIREN ZAPIA ERABILTZEN...

tzea saihesteko, soka zapiekin egitea proposatu zuen.

Iturria: gipuzkoa.dantzak.com



**bulegorako altzariak
eta hornidura**

**paper dendarako
artikuluak**



Ugaldea Industrialdea, 11

Tfno.: 943 365 892 · Faxa: 943 371 686

20170 USURBIL (Gipuzkoa)

manpel@manpel.com · www.manpel.com



Sanjuanak Andoain - ekainaren 23tik 27ra

23ko gauean, Asteazkena:
Musika eskolako Banda, Nemux diskofesta

24ko gauean, osteguna:
Trikiizio, Erramun Martikorena eta Mikel Markez

25eko gauean ostirala: Lain, Ze esatek, Lor

**26ko gauean, larunbata: Gozo Gozo, Ingo al Deu,
Skatu, Betagarri, Xaibor DJ**

SANJUANAK 2010 ANDOAIN

Ekainak 18 - ekainak 20

Ekainak 18 OSTIRALA

18:00 Buruhandiak.
19:00 Auzotarren arteko jolasak.
23:30 Laiotz taldearekin dantzaldia.

16:00 Mus txapelketa.
Izen ematea 16:30ean itxiko da.
18:00 Herriko dantzariak.
19:30 Tortilla patata lehiaketa.
Ondoren, buruhandiak.
23:30 Dj Larra.

Ekainak 19 LARUNBATA OILASKO BILTZAILE EGUNA

06:00 Gosaria eta oilasko biltzaileen irteera.
09:00 Oilasko biltzaile txikien irteera.
14:00 Oilasko biltzaileen bazkaria.

Ekainak 20 IGANDEA UMEEN EGUNA

10:00 VII. Ume Krossa.
11:30 Jolasak.
16:30 Tailerrak.
Ondoren, txokolatada.
19:00 Dj Burundarekin dantzaldia.



HERRIKO DANTZARIEN SAIDA LARUNBAT
ARRATSALDEAN IZANGO DA.

twitter.com/noaua

facebook.com/noaua

YouTube youtube.com/noauatb

NoauaTB noaua.com

Oporretan Kanariaserá!

Maspalomasen (Kanaria Handia)
2/3 pertsonentzat apartamentu bat
alokatzen da, igerileku duen urbanizazioan
(etxe esparrua ikusteko www.playmar.com)
Ekaina (21 etik aurrera), uztaila,
abuzta, iraila eta urria.

MasPalomas itsasargitik eta Ingelesaren
hondartzatik ordu erdira. Erdialdean,
Yumbo zentru komertziala 5 minutura.

informazioa: 609 75 47 99

Ekainak 23 - ekainak 24

EKAINAK 23 ASTEAZKENA SAN JOAN BEZPERA

15:00 San Joan eskearen irteera.

22:00 San Joan Sua.

Ondoren, eskearen jarraipena.



EKAINAK 24 OSTEGUNA SAN JOAN EGUNA

11:00 Meza Nagusia.

Ondoren, toka.

13:00 Gorritiren Showa
(XXV. urteurrena).

18:00 Buruhandiak.

19:00 Soka dantza.

Ondoren, sardina eta sagardo
dastaketa Saizar sagardotegiaren
eskutik, jaiei amaiera emanaz.

Oharra: jai batzordea ez da jai-
tan gerta daitezkeen istripu edo
ezbeharrez arduratuko.



SOKA DANTZA SAN JUAN EGUNEAN
IZANGO DA, 19:00ETATIK AURRERA.

**ANDER
ARANZAZISTROKI**

**industri
garbiketarako
sistema eta
produktuak**



*Ondo pasa
San Joanetan!*

GOIEKO

© 667 680 236

Ondo pasa San Joanak!!

izagirreletrizitatea@hotmail.com

izAgirre

ELEKTRIZITATEA

Goliz Argi etxea, 37 kalezar

Tel.: 943 36 50 95

Mugikorra: 609 066 111

Faxa: 943 37 65 87



ALUAL S.L.

Telf.: 943 370 506
Faxa: 943 370 550

Aluminiozko aroztegia
Zubi termikoaren hausturarekin
Egurraren imitazioa
Poliuretanozko Belkopur leihoak

Ugalde industrialdea 20 - behea USURBIL

Josue
Igeltseritza

Fatxaden estaldurak
Estalkien berriztatzeak
Barruko berrikuntzak
Gremioen koordinaketa

☎ 606 37 21 05

Ondo pasa
San joanetan!

Igeltseritza orokorra

Fax: 943 24 34 60
Atallu pol. atallu, 28
20170 - USURBIL

josueigeltseritza@euskalnet.net

SAIZAR
Sagardotegia

Ondo pasa
San joanetan!

www.sidrassaizar.com
Kale-zahar Auzoa, 39 • Tel. 943 36 22 28
U S U R B I L




Datorren astean egingo da Ziortzako kanpaldiko muntaia

Uztailean, txanda ezberdinetan, 70 bat gazte izango dira Peñaloscintoseko (Errioxa) kanpaldian. Ziortza Gazte Elkartek, urtero legez, kanpaldiaren muntaia egiteko laguntza eskatu die gurasoei edo lagundu nahi duten gurtziei.

“Urtero bezala, Ziortza Gazte Elkarteko begiraleok eta lan taldea Kanpaldiaren prestaketan buru belarri sartuak gabiltza, garaia iritsi baita.

Aurten, 70 gazte baino gehiago
Aurtengoan 70 gazte baino gehiago animatu dira gurera etorri eta esperientzia berri bat bizitzeko asmoz baina, eta hori pozgarria bada ere, sekulako lana suposatzen du; jarduerak prestatu, beharrezko den materiala batu, rutak prestatu, menuak antolatu, erosketak egin...

Baina noski, hori guztia egitea alferrikakoa litzateke muntaketa egiten ez bada. Eta horretarako gazte hauen gurasoen, edota beste edonoren laguntza eske gatzokizue.

Muntaketa guk bakarrik egitea ezinez-



EKAINAREN 26AN EGINGO DA
KANPALDIAREN MUNTAIA.

koa da, ezin baitugu denera iritsi. Orduan, eta bereziki gurasoak, animatu zaitezte Peñaloscintos ezagutuaz, lagun artean egun atsegin bat pasatzera, giro ederrean, paraje ederrean, lan apur bat eginez, eta horrela denon artean egiten badugu askoz ere xamurragoa izango da”.

Ekainaren 26an larunbata izan da muntaketarako aukeratu duten eguna. Animatzen direnek telefono zenbaki honetara deitu behar dute (620 800 099, Maider).

“Kanpamendua guztiona delako” esanez, gurasoen partehartzea biziki eskertu nahi dute Ziortzako kideek.

Ostiral honetan, Ibaia taldearen saioa

Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak antolatu du kantaldi hau. Sutegin izango da, ekainaren 18an ostirala, 20:00etan eta sarrera doan.

Laura Latienda (ahotsa gitarra), Aitor Furundarena (akordeoia), Ritxi Salaberria (kontrabaxua) eta Igor Telletxea (perkusioa) dira Ibaia taldeko kideak.

Ibaiaren kontzertuak guztiz parte-hartzaileak dira. Ikusleak kantu liburuxka bat izango du bere esku, taldearekin batera abestu dezan.

Kantu Taldearen bilera

Bestetik, ekainaren 17an osteguna Kantu Taldea batzarrean bilduko da, entsegu lokalean, arratsaldeko 19:15ean.



IBAIAREN KONZERTUAN
LIBURUXKAK BANATUKO DIRA,
KANTUAN ARITU AHAL IZATEKO.

Euskara ikasten aritu direnek diru-laguntza bat jasotzeko aukera dute

